



## AZ 0201 13\_PRAKTIKETAKO FUNTZIONARIOAK

**PRAKTIKETAKO FUNTZIONARIOAK BERE BURUA EBALUATZEKO TAULA.**

<b>ADIERAZLEAK</b>	<b>ERANTZUNA BEHAR DEN LAUKIETAN MARKATU</b>	<b>OHARRAK, HAUSMARKETAK, ZAILTASUNAK, PUNTU INDARTSUAK ETA HOBETZEKO ARLOAK, HURRENGO SAIOETARAKO PROPOSAMEN ETA ERRONKAK</b>
<b>IRAKASKUNTZA PRAKTIKAREN PLANIFIKAZIOA</b>		
<b>IKASTETXEA ANTOLATU ETA KUDEATZEARI BURUZKO AGIRIAKEZAGUTZEA.</b>	<input type="checkbox"/> Ikastetxea antolatu eta kudeatzeko agiriak ezagutu eta nire irakaskuntza-jarduera antolatzeko erreferentzia gisa erabiltzen ditut.	
<b>IRAKASKUNTZA PRAKTIKAREN PLANIFIKAZIOA</b>  3.- Talde-gelan aurrera eraman beharreko irakaskuntza- eta hezkuntza-jardueren planifikazioa eta programazioa, indarreko curriculumaren eta ikastetxearen hezkuntza-proiektuaren arabera.  4.- Talde-gelaren programazioa departamentuan edo zikloan, etapako curriculum-proiektuaren arabera, ezarritako irizpideetara egokitzea, ondorengo puntuei begira:	<b>Irakatsi eta ikasteko prozesuaren nire programazioa /programazioak:</b>  <input type="checkbox"/> Bat dator ikastetxearen curriculum-proiektuaren irizpideekin eta departamentuak, zikloak edo beste koordinazio-egitura batzuek adostutakoekin.	



– Estrategia metodologiko egokiak aplikatzea.  
– Hezkuntza-etapara edo espezialitatera egokitutako ebaluatze prozeduren aplikazioa.  
– Ikasleen aniztasunari, hezkuntza-premia bereziak dituztenei batez ere, arreta ematea.  
– Behar izanez gero, espezialitatearen programa.

Garatu beharreko gaitasunak, helburuak, jardura metodologikoak, baliabideak, irizpideak, adierazleak eta ebaluatze prozedurak sartzen ditu.

Ingurunearen ezaugarriak, ikasleen ezaugarriak, premiak, gaitasun maila eta zailtasunak eta sortuko diren egoerei aurre egiteko aldeztatik izan beharreko ezaugarriak hartzen ditu kontuan.

Oinarrizko edo gutxienezko helburuen gisa definitzen dira lortu beharreko batzuk.

Ikasteko erritmo eta era desberdinei ematen die arreta.

Tratamendu inklusibo bat sartzen du hezkuntza-premia berezietako ikasleentzat, haien ezaugarrien arabera.

Planifikatutako ebaluatze prozedurak hezkuntza-etapara edo ziklora egokitzen dira eta etengabeko ebaluazioa eta ebaluazioaren objektibotasuna bermatzen dituzte. Batez ere, prestakuntza-izaera dute eta ematen dute norberak bere burua ebaluatze eta koeebaluaziorako aukera. Tresna desberdinak erabiltzea aurreikusten du.



Unitate didaktikoaren programazioa aldatu edo egokitzen dut, gutxienezko helburuen formulazioa edo beste alderdi batzuk hobetu edo osatzeko asmoz.

### IRAKASKUNTZA PRAKTIKAREN GARAPENA

#### IRAKASKUNTZA PRAKTIKA GELAN: metodologia eta gelaren kudeaketa.

5.– Testuingurura eta ikasleen adinera eta ezaugarrietara **egokitzea**.

6.– Talde-gelako ikasleen aniztasunari ematen zaion **tratamendua**.

7.– Gelaren **antolaketa** inklusiboa.

8.– **Praktika** metodologiko eraginkorrak eta ikasleen ezaugarrietara egokituak.

9.– Ikasteko ikasleen **motibazioa**.

#### Klasearen garapena

Zehatz-mehatz prestatzen ditut klaseak, jarduerak eta materialak.

Gelako saioan ezarritako programazioaren arabera jokaten dut baina behar den malgutasuna dut, ikaskuntzari lagunduko dion edozein egoera edo zirkunstantzia aprobetxatzeko orduan.

Argi dut ikasleei proposatzen didan jardueretako bakoitzarekin lortu nahi dudana helburua.

Puntu-puntu hasten naiz klasea ematen.

Ordenatua eta sistematikoa naiz.



10.– **Trebetasunak** izatea talde-gelan sortutako **gatazkak** konpontzeko orduan.

- Denbora egoki dosifikatzen dut. Jarduerak denboretan banatzeko prozesua eta sekuentziazioa zuzenak dira.
- Segurtasunez erabiltzen dut materiala.
- Orientabideak ematen dizkiet ikasleei gelako lana egiteko orduan.
- Galdera indibidual eta kolektiboak egiten ditut.  
Ikasleek ulertu dutela eta feedbacka egiaztatzen ditut.
- Mugitzen naiz eta ikasleei ematen diet arreta.
- Ez ditut irakasteko erritmoa eta taldearen kontrola galtzen.
- Ikasleen premiak, zailtasunak eta aurrerapena banaka diagnostikatu eta neurtzeko estrategiak erabiltzen ditut.
- Ikasleen premiei, gaitasunei, talentuei eta ikasteko estiloiei behar bezala ematen diet erantzuna.

**Gaitasun zientifiko eta didaktikoa**

- Gaia menperatzen dut, argia naiz eta besteek ulertzen didate, aurkezpena egin eta azalpenak emateko orduan.



- Aurrera eramaten ditudan unitate didaktikoak ikasleen gaitasunera egokitzen dira.
- Ikasleen aldez aurreko ezagutzak ditut abiapuntu eta ulergarriak eta esanguratsuak izan daitezen ahalegintzen naiz.
- Irakasten dudan gaiarekiko interesa sortzen dut. Ikasleei ikasteko gogoia pizten diet, adibide konkretuak, zehatzak, haien errealitatetik hurbil daudenak eta edukietara egokituak erabiliz.
- Unitate didaktikoa garatzen dut, ulermen eta motibaziorako lagungarri diren estrategiak erabiliz.
- Puntu inportanteak azpimarratzen ditut.
- Beste arlo batzuen edukiekin konexioak egiten ditut.

**Metodologia:**

- Garatzen dudan unitate didaktikora eta arlo edo irakasgaira egokitutako metodologia erabiltzen dut.
- Gaitasunak garatzeko prozesua sustatzen dut.
- Ikasleen ezaugarrietara eta ikasteko erritmo desberdinetara egokitzen naiz. Irakasteko eredu eta estrategia desberdinak erabiltzen ditut eta, horretarako, baliabide eta irakasteko material anitz erabiltzen dut.



Motibazioa eta ikasteko ikaslearen interesa sustatzen ditut. Ikasleentzat esanguratsuak izateko moduan planteatzen ditut ikaskuntzak. Ikasleek interesgarritzat jotzen dituzten testu, material eta baliabideak erabiltzen ditut.

Praktikaren gaineko ikaskuntza sustatzen dut. Esperientzia didaktikoak antolatzen ditut, ikasleei praktikatzeko aukera emateagatik.

Autoebaluazioa eta haien ikasteko prozesuaren kontrola, baita koebaluazioa ere, sustatzen ditut ikasleen artean, ikasteko prozesuan autonomia bultzatuz.

Proposatzen ditudan jarduerak anitzak dira, estrategia intelektual desberdinak erabiltzea sustatzen dute eta ikasteko era eta erritmo desberdinei ematen diete arreta.

**Gelaren antolaketa:**

Gelaren antolaketak ikaskuntza kooperatiboa, berdinen arteko ikaskuntza, parte-hartzea eta komunikazioa sustatzen ditu.

**Elkarbizitza eta ikasteko giroa**



- Ikasteko giro egokia dut.
- Liderra naiz gelan, ez dut kontrola galtzen eta autodiziplina sustatzen dut.
- Ikasleen portaera dela-eta, arau argiak ezartzen ditut, itxaropen positiboak ematen ditut eta gelan lan egiteko konfiantza-giroa sortzen dut.
- Prozedura mota desberdinak erabiltzen ditut gelan sortzen diren gatazkak kudeatzeko orduan eta ez naiz diziiplina-neurri hutsak aplikatzera mugatzen.
- Egoera gatazkatuak ikasteko abagune gisa erabili eta portaera desegokiak zuzentzera bideratzen ditut.
- Klasearen dinamika eten gabe kudeatzen ditut egoera desegoki arinak.
- Irakasteko erritmo bat dut eta nire ikasleek lan egiteko dinamika on bat izatea lortzen dut.
- Errefortzu positiboen sistema bat eta ikasleen autoestimua eta autoerregulazioa laguntzeko neurri zuzentzaileak sustatzen ditut, distraitura dauden ikasleek interesa izateko eta portaera desegokiak bideratzeko.

**Ikasleekin komunikatzeko eta harremanak izateko gaitasuna**

- Nire ikasleekiko harremanak elkarrekiko begirunea eta konfiantza ditu oinarri, ezarritako elkarbizitza-arauen barruan.



	<input type="checkbox"/> Ulermena, interesa eta kezka azaltzen ditut, ikasleen ezaugarri emozional, sozial eta fisikoak direla-eta. <input type="checkbox"/> Ez dut neure buruaren kontrola galtzen klasean sor daitezkeen egoera desberdinetan eta ikasleekiko interakzioan. <input type="checkbox"/> Jarrera irekia dut, ikasleekin harremanak izateko orduan. Sinpatia, umorearen zentzua, itxura, bizitasuna, oreka emozionala eta erabakitzeko gaitasuna azaltzen ditut.	
<p><b>IKASLEEN IKASKUNTZEN EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA</b></p> <p>11.– Prestakuntza- eta bildumazko ebaluazioaren aplikazioa eta diseinua programatutako irakatsi eta ikasteko prozesuetan.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>– Gutxienezko ezagutzak, gaitasunak garatzeko maila eta ebaluatzeko, kalifikatzeko eta beste kurtso batera igarotzeko irizpideak definituta egotea.</li> <li>- Ikasleek ebaluazio objektiboa izateko eskubidea bermatuko duten ebaluatzeko tresna edo prozedurak erabiltzea.</li> <li>– Talde-gelako ikasleek lortutako emaitzen analisia eta ikasle bakoitzak banaka lortutako ikaskuntza maila.</li> <li>– Ikasleek egindako aurrerapenaren jarraipena egitea.</li> </ul>	<input type="checkbox"/> Araudi orokorraren eta ikastetxearen arau partikularraren araberako ebaluazio-, kalifikatzeko- eta beste kurtso batera igarotzeko irizpideak erreferentzia gisa erabiltzen ditut nire irakaskuntza-praktikan eta ebaluatzeko prozesuan. <input type="checkbox"/> Irizpide argiak ditut, ikasleen aurrerapena eta emandako kalifikazioak zehazteko orduan. <input type="checkbox"/> Ebaluatzeko teknika egokiak erabiltzen ditut, unitate didaktikoan ikasleen aurrerapena neurtzeko: hasierako eta bukaerako ebaluazioa. <input type="checkbox"/> Ikasleek eta familiek lortu nahi diren helburuak ezagutzen dituzte, behatutako unitate didaktikoa aurrera eramateko orduan.	





– Aurrerapen horri buruzko informazioa ikasleei eta familiei ematea (behar izanez gero, talde-gelak tutoreari).

- Gaiari hasiera ematean ebaluatzeko irizpideak ematen dizkiet ikasle eta familiei, baita, probaren bat eginez gero, kalifikatzeko irizpideak ere.
- Ebaluazio-jarduerak, zailtasun maila desberdinekin, egitea proposatzen diet ikasleei.
- Gelaren datuak sistematikoki biltzen ditut eta ebazteko gauza izan diren ikasleen kopurua aztertzen dut, komenigarritzat joz gero birdefinitzeko asmoz.
- Ikasleen ikaskuntzak ebaluatzeko erabiltzen ditudan prozedurak (teknikak, tresnak, denborak, ...) arlora eta ikasleen ezaugarrietara egokitzen dira, objektibotasuna bermatzen dute eta ebaluazioaren prestakuntza-funtzioa sustatzen dute.
- Era objektibo eta sistematikoan jasotzen dut ikasle bakoitzak egindako ikaskuntzen aurrerapena, etengabeko ebaluazioaren arabera.
- Emaitza positiboak lortu ez badira, laguntzeko eta berreskuratzeko prozedurak diseinatu eta aplikatzen ditut.
- Talde-gelan lortutako emaitzen arabera hobekuntzak sartzen ditut irakatsi eta ikasteko prozesuan.


**TUTORETZA ETA ORIENTABIDEA  
 FAMILIEKIKO HARREMANA**

12.– **Tutoretzan** behar bezala aritzea eta dituen funtzioak betetzea.

13.– Familiekiko koordinazioa, ikasleen irakatsi eta ikasteko prozesua hobetzeko.

13.– Ikasleekin eta familiekin komunikatzeko eta harremanak izateko gaitasuna.

Harreman arina dut ikasleekin, entzuteko eta laguntzearen aldeko jarrera agertzen dut eta haien ezaugarri eta premiei, alderdi akademikoetan eta prestakuntza-alderdietan, ematen diet arreta.

Harreman arina dut familiekin (eta, behar izanez gero, talde-gelako tutorearekin), haien seme-alaben ikaskuntzan izandako aurrerapenen berri emateko.

Lankidetzan aritzeko argibideak ematen dizkiet familiei, ikasle bakoitzaren ikaskuntza hobetzeko eta ikasleak hezteko prozesuan koordinazioari laguntzeko.

Ikastetxearen tutoretza-planean ezarrita dagoen legez, talde mailako tutoretzaren edukia garatzen dut tutorea naizen taldean, edo, plan horretan ezarritakoaren arabera, lankidetzan ari naiz klasea ematen dudan taldeetako tutoreekin.

Talde-gelan planteatutako jardueren koherentzia eta argibideak bermatzeko, irakasle-taldeak hartutako akordioak hartzen ditut kontuan.

Kohesioa lortzeko eta talde-gelan pertsonen arteko harremanak eta eskola-giro ona hobetzeko egiten dut lan.

Ikasle bakoitzari ematen dizkiot orientabidea eta laguntza.



	<input type="checkbox"/> Trebetasun sozialak agertzen ditut pertsonen arteko harremanetan, ikasle eta familien artean konfiantza eta estimu profesionala sortuz. <input type="checkbox"/> Prestutasuna erakusten dut, familiei arreta eta informazioa emateko eta irakatsi eta ikasteko prozesuaren partaide bihurtzeko.	
<b>IRAKASKUNTZA PRAKTIKARI BURUZKO HAUSNARKETA_ETENGABEKO PRESTAKUNTZA</b>		
<p><b>PRAKTIKARI BURUZKO HAUSNARKETA ETENGABEKO PRESTAKUNTZA</b></p> <p>14.– Haren irakaskuntza-praktikari buruzko hausnarketa, etengabe hobetzeko.                  15.– Ikaskuntza eta berriztapenenaren aldeko jarrera izatea.                  16.– Prestakuntza-prozesuetan parte hartu eta lankidetzan aritzea.</p>	<input type="checkbox"/> Irakatsi eta ikasteko prozesuaren une desberdinetan nire jarduera profesionala analizatu eta ebaluatzen dut. <input type="checkbox"/> Nire analisiaren ondorioetatik abiatuz, hobetzeko arloak planteatzen ditut. <input type="checkbox"/> Gelan behaketak egitearen aldekoa naiz, hobekuntza-arloak errazago identifikatzeko edo praktika onak partekatzeko. <input type="checkbox"/> Prestakuntza-saioetan landutako esperientziak jartzen ditut praktikan. <input type="checkbox"/> Berriztapenenaren eta etengabe hobekuntzaren aldeko jarrera dut. Etengabe bilatzen ditut nire ikasle bakoitzak ahalik eta gehien ikasiko dutela bermatzea oinarri duten estrategiak.	
<b>IKASTETXEAN PARTE HARTZEA, KOORDINATZEA ETA LANKIDETZAN ARITZEA</b>		



<p><b>IRAKASLE TALDEKO kide gisa KOORDINAZIOAN eta era aktiboan lankidetzan aritzea</b> lan-bileretan eta ikasleak hezteko prozesuan.</p>	<p><input type="checkbox"/> Behar bezala eta etengabe ari naiz lankidetzan eta koordinazioan esku hartzen dudan talde-geletako irakasle-taldearekin, irakatsi eta ikasteko prozesuan irakasleen jardueren koherentziari tea osagarritasunari laguntza emanez.</p>	
<p><b>ZUZENDARITZA TALDEAREKIN LANKIDETZAN ARITZEA IKASTETXEAK BEHAR BEZALA FUNTZIONATZEKO.</b>        1.– Ikastetxeko <b>zuzendaritza-taldearekin lankidetzan aritzea</b>, ikastetxeak eta bere hezkuntza-jarduerak behar bezala <b>funtzionatzeko.</b>        6.– Lankidetzan aritzearen eta ikastetxea hobea izateko laguntzearen aldeko jarrera.</p>	<p><input type="checkbox"/> Zuzendaritza-taldearekin ari naiz lankidetzan, sustatzen dituen ekimenei laguntza emanez, ikastetxeak eta bere hezkuntza-jarduerak behar bezala funtzionatzeko.</p> <p><input type="checkbox"/> Zuzendaritza-taldeari ematen diot laguntza.</p>	
<p>Ikastetxeko lagun bakarreko organoen proposamenez, <b>LANKIDETZAN ARITZEA HEZKUNTZA JARDUERAK DISEINATU ETA GAUZATZEKO PROZESUAN.</b></p>	<p><input type="checkbox"/> Kide naizen koordinazio pedagogikoko organoen eremuan, lankidetzan ari naiz ikastetxearen hezkuntza-jarduerak diseinatu eta praktikan jartzeko prozesuan.</p>	
<p>3.– Kide anitzeko organoen <b>akordioetan parte hartzea eta betetzea.</b>        4.– Departamentuaren, zikloaren eta talde-gelako ekipoen akordioak <b>betetzea</b>, ikasleen ikaskuntza ebaluatu eta kalifikatzeari buruzkoak batez ere.</p>	<p><input type="checkbox"/> Partaide naizen kide anitzeko organoen (OOG, klaustroa, batzorde pedagogikoa, departamentua, zikloa, talde-gelako ekipoa, ... ) bileretan hartzen dut parte, akordioetara iristeko ari naiz lankidetzan eta organo horien erabaki eta argibideak betetzen ditut, ikasleak ikasteko prozesua ebaluatu eta kalifikatzeari buruzkoak besteak beste.</p>	




<p>Irakasleen <b>KLAUSTROAN</b> eta hezkuntza-erkidegoan <b>INTEGRAZIOA</b>.</p> <p><b>TALDE LANA</b>          9.– <b>Talde-lana</b> egiteko gaitasuna.          11.– <b>Parte hartzea eta era aktiboan lankidetzan aritzea</b> irakasleen <b>bilera eta lan-taldeetan</b>.          10.– <b>Ikastearen eta praktika onak partekatzearen aldeko jarrera</b>, lankideen lana errespetatu eta baloratzetik abiatuta balioa ematen duten proposamenak egitea.</p>	<p><input type="checkbox"/> Parte hartzen dut klaustroan. Eskola-erkidegoko kide desberdinen koordinazioan eta elkar ulertze onean inplikatzeko naiz eta lan-, elkarbizitza- eta lankidetzan aritzeko giroa egokia izan dadin ematen dut laguntza.</p> <p><input type="checkbox"/> Bilera eta lan-taldeetan era aktiboan hartzen dut parte. Talde-lanari buruzko nire jarrerak talde-dinamikak laguntzen ditu, lankidetzan ari naiz, landutako gaiei erantzuna emateko irtenbideak proposatzen ditut eta akordioetara iristeko gauza naiz.</p> <p><input type="checkbox"/> Jarrera positiboa eta praktika onak partekatzearen aldekoa dut. Nire lankideen lana errespetatuz, hobetzeko proposamenak egiten ditut.</p>	
<p>IKASTETXEAREN HEZKUNTZA <b>JARDUERETAN PARTE HARTZEA</b>.          7.– Ikastetxearen eskola- eta hezkuntza-<b>jardueretan parte hartzea</b>.          8.– Ikasleekin egin beharreko hezkuntza-jardueretan, eskolaz kanpokoetan eta jarduera osagarrietan, OOGn onartuak eta Ikastetxearen Planean jasota agertzen direnak, parte hartzea.</p>	<p><input type="checkbox"/> Era aktiboan hartzen dut parte gelan eta gelatik at ikastetxearen ohiko lanaldian egiten diren eskola-jardueretan.</p> <p><input type="checkbox"/> Lankidetzan ari naiz edota parte hartzen dut OOGn onartuak izan diren eta Ikastetxearen Urteko Planean jasota agertzen diren eskolaz kanpoko jardueretan eta jarduera osagarrietan.</p>	
<p>12.– <b>ELKARBIZITZA POSITIBORAKO ETA IKASTEKO GIROA ONA IZAN DADIN LAGUNTZA EMATEA</b>.</p>	<p><input type="checkbox"/> Gelan eta gelatik at behar bezala ikasteko elkarbizitza positiboari laguntzeko estrategiak erabaten ditut aurrera. Elkarbizitza-arazoei behar bezala aurre egiten diet eta elkarbizitza hori sustatzeko jarduera edo programetan.</p>	
<b>FUNTZIOAK, EGINKIZUNAK ETA EGINBEHARRAK BETETZEA</b>		



14.– Ikastetxean egin beharreko **ordutegi pertsonala** betetzea.  
 16.– Ikastetxean agintzen dioten edozein **kargu** edo ardura behar bezala **betetzea**.  
 15.– Talde-gelan eman beharreko **arloen ordutegiak** betetzea.

- Lan-ordutegia betetzen dut. Egin ditzakedan hutsegiteak aldeztatik aurreikusi eta behar bezala antolatzen ditut (nahiko lehenago ematen dut abisua, zaintzako irakasleentzat prestatzen dut materiala, ... ).
- Behar izanez gero, nire ordutegia malgutzea edo aldatzea eskatzen duten aparteko egoerei ematen diet arreta (premiatzko gaiak, elkarrizketak egiteko familien ordutegira egokitzea, ... ).
- Ezagutu eta behar bezala betetzen ditut agintzen dizkidaten karguetan aritzeko ezarritako funtzioak.
- Ematen ditudan curriculum-arloetarako /irakasgaietarako araudian eta ikastetxearen planifikazioan ezarritako ordutegia eta helburuak betetzen ditut.
- Epean jartzen dut ikasketa-burutzaren eskuetan nire programazioa.

## BESTE OHAR ETA ONDORIO BATZUK



Azkenik, hitz gutxitan laburtu, ikuskariak zure gelara egindako bisita eta geroagoko elkarrizketa direla-eta, zure esperientzia: zure irakaskuntza-lanerako eta horri buruz hausnarketa egiteko lagungarri izan al dituzu. Halaber, jarduera hau egitea komeni den jakiteko zure iritzia eskertuko genizuke, baita hobetzeko edozein proposamen ere.



201.....ko .....-aren .....(-e)an

Fdo/ Izpta.: ..... jn./and.

ESKERRIK ASKO ZURE LAGUNTZARENGATIK